

Herri Aldizkaria

**otomoto**

2005eko urtarrila 103. alea



**BAY ala BAI ?**



KOLABORAZIOA: ARAIZ PADRON  
ELKARRIZKETAK: ANGEL CRUZ JAKA - SARA ZUFIAURRE  
IZERDI PATSETAN: GOIERRI SASKIBALOI TALDEA



75 URTEURRENA

La  Salle Legazpi



Matrikulazio  
epea:  
Otsailaren  
14tik 25era

☎ 943 72 15 14  
Fax: 943 72 56 73



Irakasten  
eta  
hezitzen



# ARGAZKI ZAHARRA



70eko hamarkadan Ikastolan ateratako argazkia.

1. ilaran: Mikele Aldasoro andereñoa, Pedro J. Rodríguez, Joseba Albisua, Alberto Ibarzabal, Imanol Garmendia, Juan Luis Rodríguez, Aitor Agirrezabal, Aitor Urkiola, Iñaki Beraza, Juanto Bereziartu(?) eta Ana Martínez.

2. ilaran: Nekane Larrañaga, Josune Gabilondo, Maribel Zufiaur, Nerea Ruiz, Izaskun Badiola, Elisabeth Aldama, Itziar Adrián, Ane Miren Izagirre, Jaione Lekuona, Garbiñe Basabe eta Maite Zangitu.

3. ilaran: José Luis Padrón, Iñaki Bastarrika, Alberto Okariz, Josu Ovejero, Elena San Miguel, Iñigo Anduaga, Josune Sueskun, José Mari Urisabel, Javier Igoa, Iñaki Otaegi eta Josu Iturbe.

4. ilaran: Gurutze Mendia, Angel Pardo, Fermín Etxeberria, Jesús Ramón Zabaleta, Joseba López de Munain, Luis Mari (?) Mendaraz, Asier Urretabizkaia eta Mikel Gabilondo.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte.

Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.

**Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## EDURNE

GIZONEZKOEN  
JANTZIDENDA ESKUZ  
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17

*Darmanki*

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK  
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
URRETXU

centro óptico  
**JAVIER Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA

2005eko urtarrila





# KLIK ETA KLIK





# KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak, Gabonei buruzkoak, Argazki Elkarteko Carlos Abasolok, Javi Alonsok eta Javi Martínez-ek atera eta errebelatu dituzte.

## MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



*Lanbasa*

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,  
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎ 943 72 62 74  
ZUMARRAGA






## Abiadura Handiko

### “AHT gelditu! Elkarlana” taldeko bi kidek eta alk

Nork daki zenbat urte igaro diren lehenengoz Abiadura Handiko Trenaz hitz egiten entzun genuenetik? Batzuek Euskal Herriaren garapenerako beharrezkoa dela eta gure eskualdera ere aberastasuna eta erosotasuna ekarriko duela diote, besteek gutxi batzuentzat aberastasuna eta gehienontzat txikizioa besterik ez duela ekarriko diote, askok proiektua zertan datzan ideiarik ez... Gauzak apur bat argitzearren egitasmoaren aurka dauden "AHT gelditu! Elkarlana" taldeko Rikardo Bilbaorekin eta Danel Etxeberriarekin eta alde dauden Urretxu eta Zumarragako alkateekin hitz egiten izan gara.

Ezkion bizi den Rikardo Bilbao zumarratarrak eta Danel Etxeberria itsasondoarrak urteak daramatzate AHTaren aurkako borrokan. Biak, "AHT gelditu! Elkarlana" taldeko kideak dira. Talde horrek, hainbat udal, sindikatu, alderdi politiko eta talde ekologista biltzen ditu, besteak beste.



#### Zer lan egiten duzue “AHT gelditu! Elkarlana” taldean?

Rikardo: Eskualde bakoitzeko taldeak trenak bertan izango lukeen eragina aztertzen du eta jendeari informatzen saiatzen da.

Danel: Hasieran bakoitza bere aldetik zebilen eta, hori ikusirik, “AHT gelditu! Elkarlana” taldean bat egitea erabaki genuen. Talde bezala ez dugu alternatibarik aztertzen, gure helburua AHT egitasmoa gelditzea, guztiok egitasmoaren berri zehatza izatea, zer komeni zaigun aztertzea eta, azkenik, gehien komeni zaigun erabakia hartzea da. Hitzaldietara joaten garenean jendeak ideiarik ez duela ikusten dugu eta Eusko Jaurlaritzak ez du informatzeko asmorik. Behin baino gehiagotan eurekin eztabaidatzen saiatu gara, baina beti izkin egin digute. Nire ustez, jendeak egitasmoaren benetako berri izango balu, kontra agertuko litzateke.

#### Zer jakin beharko luke bada jendeak?

Rikardo: Kontua ez da eskainiko duen zerbitzua, baizik eta trenbidea egiteak zenbat diru ekarriko duen. Zuloak, tunelak, errepideak eta zubiak egiten dituztenentzat, harrobietako jendearentzat... negozio handia izango da. Horregatik egin nahi dute. Guztiok ordainduko dugu eta gero enpresa

pribatu batek kudeatuko du. Azpiegitura honek ez du gure herria egituratzeko balio. Bilbo, Gasteiz eta Donostia AHTaz komunikatzea baino askoz ere behar handiagoak daude: garraio publikoaren bidez haranen arteko komunikazioa hobetzea, esaterako. AHTak ez ditu garraio arazoak konponetzen.

#### Ez dirudi, ordea, Europar Batasuna dirua emateko prest dagoenik...

Danel: Zorionez arazo hori dute. Europar Batasunak ez ditu bere lehentasunen artean ez Y-a ez Nafarroako H-a. Baina Amann sailburuak nola hala hasi nahi du obra, hala dirulaguntza lortuko duela uste baitu. Euskal Y-aren aurrekontua 3.600 milioi eurokoa zen duela bost urte, egun 6.000ra edo iritsiko litzateke. Amann-ek bidaiari zein merkantzia trena izango dela dio, baina Europan ez da AHTrak erabiltzen merkantziarako, ez baita errentagarria (abiadura txikiagoa, zolua sendotu beharra...). Intxaurragak errepidetatik auto eta kamioi asko kenduko direla dio, baina Euskal Herrian autoz distantzia motzeko bidaiak egiten dira. Gainera, beraiek dioten bezainbeste auto eta kamioi errepidetatik kentzeko, ordu erdiro jarri beharko litzateke bidaiari tren bat eta ordu laurdenero merkantzi tren bat. Hori ezinezkoa da.

Rikardo: Zenbait daturen arabera, AHT 300 kilometrotik gorako bidaietarako soilik da errentagarria. Izan ere, orduko 300 kilometroko abiadura hartzen duenez, abiada hartzeko eta gelditzeko distantzia handia behar du. Gasteizen egunean hiru aldiz ere ez litzateke geldituko... Hegazkinari aurre egiteko ezin da toki guztietan gelditu. Frantziako AHTa Bordele eta Poitiers-en soilik gelditzen da. Jendeak Ezkion trena hartuko duela uste du... tarteko geltoki horien kontua egitasmoa saltzeko besterik ez da! AHTa exekutiboentzako trena da, hegazkinaren ordezkoa.

#### Ezkion merkantzia trenerako geltokia egingo balitz, eskualdeko ekonomia jarraierarako ona izango litzateke...


Rikardo: Zer bizi kalitate izango dugu Ezkion guztia industria enpresez betetzen badute? Gainera, aipatu dugun moduan, Europan AHTak ez dira merkantzia trenak, pisuak abiadura jaitziazten baitu.

Danel: Guztia dirutan neurtzen da beti. Ez dut ekonomia arloko daturik, baina bertan apeaderoa jartzeko sekulako zelaiunea egin beharko litzateke eta milaka kamioi bueltaka ibiliko lirateke egunero. Ez dakit non sartuko litzatekeen hori guztia. Txikizioa izango litzateke.



## Trena: BAY ala BAI?

### teek egitasmo honi buruzko iritzia azaldu digute



**Danel Etxeberria:**  
“Betikoa: garraio arazoa dago eta arrazoiak aztertu beharrean, zuzenean beste azpiegitura bat egin nahi da”

**Rikardo Bilbao:**  
“Kontua ez da eskainiko duen zerbitzua, baizik eta trenbidea egiteak zenbat diru ekarriko duen”

**Zein eragin izango luke, bada, ingurugiroan?**

Danel: Euskal Y-ak 180 kilometro ditu eta Nafarroako zatiak 190 kilometro. Trenbide guztia hesitua joango litzateke eta hesiturak landa inguruetan 120 metroko zabalera hartzen du, 30 metro zabaleko 130 kilometro tunel egin beharko lirатеke, zabortegei pila bat ireki beharko lirатеke tunelak egiteko aterako den lurra nonbaiten sartzeko, harrobi piloa ireki beharko lirатеke tunelak forratzeko, beharbada energia elektrikoa inportatu beharko litzateke Frantziako zentral nuklearretatik, zarata, bibrazioak, animaliak eta pertsonak libreki mugitzeko beste oztopo bat, zubi mordoak, 4.500.000 m2 baso eta zelai desagertuko lirатеke...

Rikardo: AHTak gutxienez lau kilometroko erradioa duten bihurtuneak behar ditu. Hori dela eta, une oro zulatu edo zubia egin beharko litzateke. Legedi europarrak AHTa biztanleria guneetatik bi kilometro baino gutxiagotara ezin dela pasa dio. Hori hemen ezinezkoa da! Esaera batek dioen moduan urrun dagoena gerturatzeko gertu dagoena urrunduko litzateke.

Danel: Betiko moduan, norbaitek onura ateratzekotan, hiriburuek aterako dute eta herri txikiak kaltetuak izango dira. Herri txikiak euren lurra eman beharko lituzkete eta bertako bizi kalitea okerragoa izango litzateke. Ondorioz, biztanleak galduko lituzkete.

**Zuen lana nahi bezalako fruitua ematen ari al da? Zuek ere informazio faltaz hitz egin duzue... nora jo behar da sakeneko informazioa lortzeko?**

Rikardo: Buzoneoak egin ditugu, manifestazioak eta hitzaldiak antolatu ditugu... baina gure baliabideak Eusko Jaurlaritzarenak baino askoz ere urriagoak dira. Guztion diruarekin nolako publizitate kanpainak egin dituzten pentsatze hutsak sutan jartzen nau. Dena den, European AHTaren aurkako gure helegitea onartu dute eta azken manifestazioa jendetsua

izan zen.

Danel: Orain arte egin den ikerketa serioena ez da guk agindutakoa: Roberto Bermejok egin du eta [bakeaz.org/CB63.pdf](http://bakeaz.org/CB63.pdf) helbidean eskura daiteke. Bertan AHTren kontraesanak agerian gelditzen dira.

**Ez al diozue ezer onik ikusten egitasmo honi?**

Danel: Oraingoan, batere ez. Betikoa gertatzen ari dela ikusten dugu: garraio arazoa dago eta arazoaren jatorria eta arrazoiak aztertu beharrean, zuzenean beste azpiegitura bat egin nahi da. Zergatik erabiltzen da hainbeste garraio pribatua? zergatik daude horrenbeste kamioi? Sistema zalantzan jarri beharra dugula uste dut. Erraustegiaren kasuan zabor asko sortzen dela esaten da, baina zer alternatiba jartzen dira abian hainbeste zabor sortu ez dadin? Goitik arauak jarri behar dira arazoiak konpontzeko.

Rikardo: Kanpotik ekartzen duten egurraren truke zuhaitz berriak jartzea kostatzen dena ordaindu beharko genuke, esaterako. Garapen jasagarria gauzak aurkitu dituzun bezain ondo edo hobeto uztea da. Ezkion trenbidea, errepeidea, autobide berria, zentral elektrikoa eta industria ditugu eta orain AHT egin nahi digute. Donostian, berriz, dena txukun-txukun. Babestu beharreko toki eder bakarra hura dela dirudi!

**Sistema zalantzan jartzeaz hitz egin duzue, zer egin beharko litzateke garraioarekin?**

Danel: RENFEko trenak geroz eta herri gutxiagotan gelditzen dira, Talgoak lotsa ematen du... pribatizatu nahian dabil-tza eta horretarako galbidera daramate: publikoa izanik ez duela funtzionatzen esango dute, euren lagunen batek merke-merke erosiko du eta pribatizatu egingo du. Dagoena hobetzen saiatu beharko lirатеke. N-lean sekulako kamioi trafikoa dagoela diote... noski! Txerriak ez dakit nora eramaten dituzten hiltzera, torlojuak alde



# HILABETE HONETAKO GAIA

batetik bestera ibiltzen dituzte... CAF inguruan goizero sekulako auto-ilarak sortzen dira. Zein izan da konponbidea? Sekulako aparkaleku egitea. Itsasondoko batzuk 6:15etan ateratzen dira etxetik 7:00etan lanera sartzeko! Hori konpontzeko borondate apur bat besterik ez da behar. Ez dakit garaiz gauden, baina zenbat eta lehenago gelditu eta zer komeni zaigun pentsatu denontzat hobe. Herritarren partaidetzaz hitz egiten dute... kaka zaharra! Arau Subsidiarioak berri nahi dituzten herriak AHT euren lurretan onartzera behartzen dituzte eta!

...: Garapen jasagarriaz hitz egiten dute, baina AHTarekin autoa gehiago erabiltzea bultzatzen ari dira. Egun Beasaindik Gasteizera trenean joan daiteke, baina AHTarekin beasaindarrek Donostiara joan beharko dute autoz eta bertan Gasteizera trena hartu. European AHT zalantzan jartzen ari dira eta!

Rikardo: Nire ustez erabaki ausartak hartu behar dira. Errepidea erabiltzen duenak ordaindu egin beharko luke eta diru hori garraio publikoa asko indartzeko erabili beharko litzateke.

## Garai batean halako proiektuek ez al zuten gizartean eztabaida handiagoa pizten?

Danel: Nire ustez egungo gazteak garai batekoak baino tontotuago egotea lortu dute. Autoa eta etxea ordaintzearekin nahikoa dute. Gainera, edozein istilutan sartuz gero, auskalo zer zigor ezartzen dizuten.

Rikardo: Guk eztabaida gizarteratzeko ahalegina egiten dugu eta zer edo zer lortu dugu, baina EITBn gai hau aipatu ere ez da egiten. Jendea kritikoa goa izan beharko litzateke.

Danel: Jendearen jarrera ulerzakea ere bada. Askotan, lan asko egin eta ez da ezer lortu. Jendea dagoeneko nazkatuta dago: zertarako borrokatu ez dakit zeren alde, gero goikoek nahi dutena egingo badute. Horri buelta ematea oso zaila da, ez dut uste gu huts egiten ari garenik.

## AHT gelditzea lortuko duzuela uste al duzue?

Rikardo: Geldirik dago.

Danel: Egitasmo hau 1989an jarri zuten abian eta oraindik ez dute pauso bakar bat ere eman, egitasmoa erredaktatzea besterik ez. European ez dute egitasmo honetan sinesten, baina hemengoak jo eta su darraite. Iaz Europako lehentasunezko egitasmoetatik kanpo gelditu zen berriro ere. 30 urte egon behar al dira inork nahi ez duen gauza baten alde borrokan? Tontakeriak esaten ari dira egitasmoa justifikatzeko: Amann-ek AHTari esker goizean Gasteizen bilduko dela, arratsaldean Guggenheim ikustera joango dela eta gauean Donostian afalduko duela esan zuen...

## Zer iruditzen zaizue inguruko Udalen jarrera?

Danel: Udal batek ezin du gauza handirik egin, lotuta baitago: aipatu bezala Arau Subsidiarioak berritzeko AHT onartzera behartzen dituzte, udal ordezkari gehienak AHTren alde dauden alderdietakoak dira... Urretxu-Zumarragan ez dute AHTri onespina eman beharrik Arau Subsidiarioak berritzeko, azpitik pasako bailitzake.

Rikardo: Ezkioko Udal berria ez da lehengoa bezain aktibo ageri AHTaren aurka. Dena den, kalte handiak eragiten dituen herrietan Udalak aurka daude alkatetzan edozein egonda ere.

Danel: Udal guztietan mozioak aurkeztu ditugu, Udalek euren postura azaldu dezaten. Dena den, panorama politikoa zein den ikusirik, ez dugu AHTaren aurka azalduko diren esperantzarik.

Rikardo: Euren postura azaltzea gustatuko litzauguke. Aurka edo alde zergatik dauden azaltzea.

Danel: Bestalde, herrietan eztabaida piztea nahi dugu. Izan ere, herrian eragina duten gaiei buruko informazioa ematea Udalen ardura izan beharko litzateke; baina gai hau ezkutuan daramate. Egitasmo inposatzailea da, boterean daudenek hasiera-hasieratik abian jarriko dela esan dute, eta kitto. Ez dute sekula esan aztertzen ari direnik.

Rikardo: Guk ere, beraiek bezala, bai diogu: bai AHTaren gelditze-ari!



**Anton Arbulu:**  
**“Europako garraiobide sareetatik kanpo gelditzea oso larria izan daiteke”**



**Pello González:**  
**“Trenbide honen ekarpen nagusia errepidetik kamioiak kentzea izango da”**



# HILABETE HONETAKO GAIA

otsailak 15

OPDZA

## Zer iritzi duzu AHTaz?

Euskal Y-a estrategikoa da. EHUko errektoreak, Merkataritza Ganbarak eta enpresarien elkarteek ere trenbide hau Euskal Herriaren garapenerako eta Europar Batasunean benetako integrazioa lortzeko oso garrantzitsua dela esan dute. Gainera, Zumarragak eta Ezkio-Itsasok sekulako garrantzia har dezakete. Etorkizuneko Europako garraibide sareetatik kanpo gelditzea oso larria izan daiteke. XIX. mendean eraiki zen trenbideak ekonomia izugarri hobetu zuen eta Europa eta penintsula arteko korridore garrantzitsuena izan da. Trenbide hura oso ondo egin zen eta oraingoa ere hala egin beharko litzateke: garapen jasangarriaren arabera eta ingurugiroan ahalik eta eragin txikiena izango duena. Bestalde, trenbide berriak barrualdeko eta kanpoaldeko komunikazioa hobetzeko balio behar digu. Ez da bailararik gelditu behar isolaturik eta, horretarako, Ezkio-Zumarragan egin nahi dugun geltoki intermodalaren antzerakoak egin behar dira. Bestalde, estatuari

aldiriko trenen transferentzia eskatu behar zaio Eusko Trenentzat erkidego osorako txartel bakarria ezartzeko.

...

Honi guztiari loturik, Aldundiak agindu duen azterketa ere oso garrantzitsua da. Helburua Beasain eta Zumarraga artean dauden herrien eta auzoen arteko konexioa eta baserri-munduaren eta gainontzeko jardueren arteko hartu-emanak hobetzea da, jasangarritasuna oso kontuan izanik.

## AHTren tamainako azpiegitura eta jasangarritasuna bateragarriak al dira?

Horretarako oso diseinu zorrotza egin behar da, inguruan integratuko dena. Aldundiak hau guztia kontuan hartzeko eskatu die aipatutako azterketa egiten ari direnei. Egungo mugikortasuna duela 150 urtekoa baino askoz handiagoa da, baina jasangarritasuna aintzat izan behar da.

## Udaletxean gai hau aztertu al da?

AHTak ez du eragin handirik

Zumarragan, lurrazpitik pasako baita. Dena den, 1992tik gaurdaino gai hau zenbaitetan aztertu da. 2002an sondeok egiteko baimena eman genuen eta 2003an zenbait bizilagunen kezka eta kexak luzatu genizkion Eusko Jaurlaritzari, esaterako.

## Trenbide berria nolako izatea gustatuko litzazuke?

Bai bidaiarientzako eta bai merkantziarako izatea nahiko nuke. N1-ak gainezka egin du eta arazoa dugu. Aldundiak Beasain-Zumarraga korridorea estrategikotzat du eta hori ondo garatu beharra dago. Bestalde, Nafarrek euren tren Y-ra lotu nahi dute eta Urolakoek Mandubia azpitik pasako den tunela egin nahi dute AHTtik gerturago egoteko. Horrek guztiak AHT potentzialki oso garrantzitsua dela esan nahi du.

## Nolako izan beharko litzateke Ezkioko geltokia? Zer ekarriko luke?

Aberastasuna ez litzake geltoki ondoan soilik sortuko. CAF enpresa hirigu-

## Zer iritzi duzu AHTari buruz?

AHT erronka estrategikoa da gure herrialdearentzat. Batez ere, bidaiarientzako eta merkantziarako izango dela ziurtatu delako. Trenbide honen ekarpen nagusia errepidetik kamioiak kentzea izango da. Bestalde, bidaia luzeetarako ere erabilgarria izango da. Hego Euskal Herriko lau hiriburuak elkar hurbiltzeko ere balioko du. Egunez bidaiarientzat izango litzateke eta gauez merkantzien garraiorako. Eskualdean geltokia izateak garapen ekonomikorako aukera bikaina eskainiko digu. Izan ere, geltokiaren inguruan hotelak eta jatetxeak sortuko dira, garraio enpresak etorriko dira... Gainera, Nafarroako Gobernuak bertako AHT Y-arekin lotu nahi du eta, nire ustez, lotura hori Ezkion izan beharko litzateke. Horretaz gain, trenbidea egiteko lanek 9.000 lanpostu sortuko dituztela eta trenaren eraginez Aquitania eta Euskal Herrian 25.000 lanpostu sortuko direla esan da.

## Ingurumenean eragingo duen kaltea ez al da gehiegizkoa izango?

Halako obra batek eragin handia

du, baina Gipuzkoan trenbidearen %60-70 lurrazpitik doa. Nire ustez errepide batek baino inpaktu txikiagoa izango du ingurumenean: Ormaiztegi-Zumarraga errepide berria ikustea besterik ez dago. Horren aurrean ez da inor kontra ageri, beharrezko ikusten baitugu. Garai batean garraibide nagusia tren izan zen eta egun errepidea da, baina epe motzean errepideek gain egingo dutela ikusten da. Kontua ez da errepide gehiago egitea, alternatibak bilatzea baizik. Baina egungo trenbide sarea ez da errepideari aurre egiteko gai. Garraibideak funtsezkoak dira herrialde baten garapenerako eta ezin dugu gure errepideak kolapsatzen utzi.

## Baina European ez da AHT merkantziarako erabiltzen.

Merkantziarako ez litzateke AHT eredia erabiliko. Abiadura handian joango litzateke, baina ez bidaiarien tren bezainbestekoan.

## Ez dirudi Europar Batasunak eta estatuko gobernuek egitasmo hau bultzatzeko asmorik dutenik...

Halako inbertsio garrantzitsua izanik, Europak eta Espainiak dirulaguntza eman beharko lukete. Egitasmo honen aurrean egon diren zalantzak, politikoak izan dira. Espainiako gobernuan PP egon den urtean garraio egitasmo garrantzitsuak beste toki batzuetan egin dira erkidegoa zigortzeko. PSOEak hasteko asmoa duela esan du, baina Bilbo-Gazteiz ardatzari lehentasuna eman. Nire ustez horrek ez du zentzurik, Hendaiako AHTarekin lotzea komeni baita. Normalena hasiera-hasieratik Madril-Irun-Bordele ardatzari lehentasuna eman izana litzateke, Europarekin lotzen baikaitu. Ardatz hau estatu espainiarreko garrantzitsuena izan da urte askotan, baina egun Madril-Bartzelona-Marsella ardatza garrantzitsuagoa da. Europarekin komunikatuko gaituen azpiegitura funtsezkoa da garapen gunea izateko. Enpresek halako komunikabide sareak dituzten tokiak hautatzen dituzte euren lantegiak kokatzeko.

...

Nik ere ez nuen oso argi AHTaren kontua. Hori dela eta, AHT geltokiari esker sekula-



# HILABETE HONETAKO GAIA

ne erdian dago eta bileraren batean toki aproposago batera joatea aztertzen ari direla esan dute. Halako fabrika bat kokatzeko Beasain-Zumarraga korridorea baino toki hoberik ez dago. Korridorean hiru zati daude: mendi gainak, mendi hegalak eta beheko lautadak. Mendi gainak babestu egin behar dira eta mendi hegaletan etxebizitzak eraiki behar dira. Elizak mendi hegaletan daude, horrek aspalditik bertan bizi izan garela esan nahi du. Beheko lautadetan, berriz, aktibitate ekonomikoak garatu behar da.

## **Europar ez dira AHTren trenbideak merkantziatarako erabiltzen...**

Europar, lauagoa denez, merkantziak errepidetik eramatea egokia da. Hemen, ordea, aldapa asko dago eta ez dugu ezertarako tokirik, N1a gainezka dago. Hori dela eta, AHTa merkantziatarako erabiltzea egokia iruditzen zait.

## **Errepideak ez al lirateke libreago izan-**

ko bultzada jaso omen duen Ciudad Realera joan ginen Aitor Gabilondo, Juan Ramon Larrañaga eta hirurok. Heldu eta berehala, alkateak argazki bat erakutsi zigun: AHTaren aurkako manifestazio batean pankarta eusten ageri zen. Bere bizitzako akatsik handiena izan dela esan zigun: geltokiari esker enpresa asko bertan kokatu omen dira, hotelak jarri omen dituzte, Madrilgo jende asko bertara joan omen da bizitzera... Ezkio inguruan ere antzerako zer edo zer gertatuko da.

## **Egungo bizimoduarekin jarraitzeko AHT beharrezkoa da, beraz.**

Urretxu eta Zumarraga ezer gutxi ziren Zumarragako geltokia egin aurretik. Hasierako proiektuaren arabera trenbidea Seguratik pasa behar zuen, baina bertan etxeak zituzten markesek ez zuten halakorik nahi eta Zumarragatik pasatzea erabaki zen. Hemen geltokirik egin izan ez balitz, Seguraren modukoak ginatke beharbada. Horrek gauza onak eta txarrak ditu. Kontua norberaren garapen eredia zein den da. Ezkiok sekulako potentziala du, bere kokapenagatik eta lur eremu zabala duelako, baina gauzak ondo

## **go garraio publikoa bultzatu eta egungo trenbide sarea hobetuko balitz?**

Beharbada ez da nahikoa egiten, baina horretarako guztiok mentalizatu beharra dugu. Dena den, Zumarragatik Donostiara zerbitzu bikaina dugu. Gainerako tokietara joateko, ordea, ez dago hain zerbitzu ona. Horretarako geltoki intermodala garatu beharra dugu. Hori guztia eginda ere, AHT beharrezkoa da; beti ere garapen jasagarria aintzat hartuta. Hartuko diren neurriak etorkizuna kontuan izanda hartu behar dira. Horretarako gogor lan egin behar da eta kostua ere altua izango da.

## **Lur gainetik joaten denetan zubiak egin beharko dira, hesitua joango da...**

Zubiak eta zubiak daude. Foster-ek egin duen Europako zubi luzeena, esaterako, oso arina da.

## **Bidaiari bezala, abantailarik ekarriko al liguke?**

planifikatu behar dira. Aurka agertzea eta nekazal paisaia defendatzea oso ondo dago, baina horrek ez digu egunerako ogia emango. Ekonomiaren globalizazioak eskatzen diguna betetzen ez badugu, ez gara ezer izango. Nire ustez, ez dira errepide gehiago egin behar eta ardatzak artikulatu ostean ez da azpiegitura gehiago behar izango.

## **Egungo trenbide sarea eta garraio publikoa oro har hobetuz, ez al litzateke nahikoa izango?**

Dena beharrezkoa izango da. Madril-Irun trenbidea baztertu samar dago, baina berezko gabeziak ditu. Seguratik ez pasatzeko sekulako itzuligurua egin zen eta horrek koste handia du. Ezin ditu egungo komunikazio beharrak asetu. Lehen ez ginen herritik ezertarako ateratzen eta egun sekulako mugimendua dago. Dena den, egungo trenbidea ere hobetu beharko da. AHTk horretan lagunduko du, trenbide arruntetik merkantzia tren asko kenduko direnez, Donostiara tren gehiago jarri ahal izango baitira. Metro modukoak izan daiteke eta errepidetik autoak kentzeko balioko du.

Bidaia luzeetarako, bai. Nire ustez geldialdi bakarrak Amorebietan, Ezkio-Itsason eta mugan izango dira. Kooperatibek geltoki hau Arrasatera eramateko saiakerak egin dituzte, beraz, pentsa zein garrantzitsua izango den! Globalizazioa dela eta, lan kontuengatik Europako eta munduko edozein tokitara bidal zaitzakete.

## **Ezin al daitezke hegazkinez joan?**

AHT hegazkina baino erosoagoa da eta trenbide hau egin den tokietan hegazkinen erabilera jaitsi egin da.

## **Ez dirudi Europar Batasunarentzat eta Madrilgo gobernuarentzat azpiegitura hau hain garrantzitsua denik...**

Ezin ditugu Europar Batasunaren dirulaguntzak galdu, baina horretarako proiektua definituta izan beharra dugu. Amann-i edo estatuko gobernuari galdetu beharko zaio zergatik ez dagoen definituta oraindik.

## **Jendeak autoa erabiltzeari utziko liokeela uste al duzu?**

Nire ustez, hamar urteko epean, errepideek autoak direla eta gainezka egingo dute eta garraio publikoa erabili beste erremediorik ez dugu izango. Errepidean kontrol neurriak jarri beharko dira. Nor egongo litzateke duela 20 urte OTAren alde? Bidaia motzetarako egungo trenbidea eta luzeetarako AHT erabili beharko dugu. AHT, trenbide arrunta, autobusa... izango ditugu. Gure herrian aterako dugun txartelak edonora joateko aukera eskaini beharko liguke: herrian Intxaurrendora joateko txartela atera, Donostiara trena hartu eta, bertan, beste txartelik atera gabe, Intxaurrendora eramango gaituen autobusa hartu. Garraio publiko erakargarria eskaini behar da.

## **Ezkioko geltokia bidaiarientzat ere izango litzateke?**

Proiektuaren arabera bai. Dena den, AHT garapen gune moduan da interesgarria batez ere. Nafarroako Gobernuak bere trena Y-arekin lotu nahi badu, pentsa... EAerekin elkartu behar min emango die, baina...



autonomoentzako eta mikroenpresetarako **mintegiak**

## Internet: Zer eskatu behar diot Web garapenerako zerbitzuen hornitzaileari?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

**Zure Web orrialdea sortu nahi?** Hornitzailearekin harremanetan jartzekoan **jakin beharrekoa** erakutsiko dizugu: nola aukeratu egokiena, bilatzaileen garrantzia...

**Goierri-Urola Garaia**  
otsailak 15  
ORDIZIA  
Goierri Lanbide Eskola  
Ordutegia: **18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:

**902 252 595**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)


[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

Antolatzailea:



**Miramón**  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

**euskadi**  
Informazioa piztzen du eta laguntzen du informazioa

**e-gipuzkoa**

**SPRI**

[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**megadenda**

**ramos**

Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutuan



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599





Araiz Padrón

## Heriotzaren begirada

Cando penso que te fuches,  
negra sombra que me asombras,  
ó pe dos meus cabezales  
tornas facéndome mofa.

Cando maxino que es ida,  
no mesmo sol te me amostras,  
i eres a estrela que brila,  
i eres o vento que zoa.

Si cantan, es ti que cantas;  
si choran, es ti que choras;  
i es o marmurio do río,  
i es a noite, i es a aurora.

En todo estás e ti es todo,  
para min i en min mesma moras,  
nin me deixarás ti nunca,  
sombra que sempre me asombras

“Txoriak ezkutatu egiten dira hiltzeko”. Esaldi hori irakurri dut poema batean, eta zutaz idaztea otu zait, Heriotza. Ez esaldi horrek bereziki ezer berririk esaten didalako, (ezkutatua ibiltzen zaren neurrian, ezkutaturik bilatzen dugu desagertzea), azkenotan nabarmenkeria harroputza erakusten duzu ene inguruan; eta ez dut uste inork betarik eman dizula horretarako.

Sinonimo asko ezartzen dizkiot zure izenari, baina sekula zuk nahi duzun hori. Askotan erakutsi didazu hori.

Lotsagabetzat jo izan zaitut beti. Inork deitu ez, zu hor. Ausentziaren sortzailea. Sentimendu zatiak husten, nik betetzen, eta bion artean bakardade huts konplexua

ulertzen.

Eta ordenagailuan letrak zapaltzen ditudan heinean, ikusten dut printzipio batean iritzi artikulua zena, poesia bilakatzea nahi duzula.

Ez ote aldamenean ez ditudanei errespetu falta zu poesia bihurtzea, Heriotza?

Panpin triste baina adeitsuaren papera betetzen ikusi zaitut maiz.

Gehiago ahal ez izatean bihotz besarkatua.

Ametsa eta errealtate artean mesede.

Ulermen gradu berriak aurkitzera behartzen.

Beltz naizenean, urgainean bidea garden amarratuz irtenbideak.

Edukazio onekoa, zure bila ibiltzen direnentzat ezkutalekurik ez.

Errespetua, zortea, putasemea, guratsua, glamourra, zenbakia, izeba, aitona, hura, haiek... ni neu... zu zeu... Heriotza.

BAINA INOIZ EZ AGURRA, INOIZ EZ DESESPE-RANTZA.

Eta sinonimoak antonimo bilakatzen zaizkit haserrean, eta iritzi artikulua bilakatzen dira hitzak berriro.

Hirugarren pertsonan aritzea gustuko nuke, beharbada baita zuk ere, Heriotza, (zure lana egin duzu, baina oraingoan guztiz harriz); aldiz ezin dut.

Ahotsa urruna hil didazu inoren izenean hitz egiteko.

Eta orain, bat-batean, bera zu izatea apetatu zaizu.

Eta zu bere begirada.

Baina bera da zure begirada. Eta zu ez zara konturatzten.

Itsua. Babua.

Zortea duzu, bere begien kolore bizi hori bereganatzeaz, Heriotza.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK  
-ELEKTRAGAIK  
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA



# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Inauteriak gustuko al dituzu? Nola bizi dituzu?



### Josune Mujika eta Amaia Torner

Gustuko ditugu, bai. Urtero mozarrotu ohi gara, bi edo hiru egunetan normalean: larunbatean eta asteartean herrian eta igandean, berriz, Tolosan. Zalantzarik gabe, asteartekoa izaten da onena. Oraindik ez dugu pentsatu zertaz mozarrotu. Egia esan, ez dugu lan gehiegi hartzen.



### Marian González

Beste edozein festa bezala, inauteriak gogoko ditut. Kontua ondo pasatzea da. Orain ez naiz mozarrotzen, baina seme-alabak mozarrotzen ditudanez, nik ere festa bizi dut. Gauetan irten ohi naiz, baina mozarrotu gabe.



### Jesus Mari Luzuriaga

Inoiz ez naiz mozarrotu eta, beraz, inoiz ez dut inauteriez gozatu. Alaba mozarrotzen denez, niri ere nolabait festa bizitzea tokatzen zait. Egia esan, ohitura hau inoiz ez dut gustuko izan.



### Deiane Pérez

Inauteriak betidanik gustuko ditut eta urtero mozarrotzen naiz. Hemen larunbatean eta, ahal izanez gero, asteartean ateratzen gara. Igandean, berriz, Tolosara joaten gara. Urtero mozarroz aldatzen saiatzen naiz, baina ez da erraza. Kodrilakoak ados jartzen bagara, denok berdin mozarrotuko gara.

# ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Montajes e Instalaciones Eléctricas  
**HERCE**  
Instalaciones M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Belarretu*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belarretu*

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**PAKO VIERBUCHER**

Ezkontza erreportajeak  
Argazki estudio eta artxiboa  
Prozesu digitalak  
Bideo profesionala  
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga

**BIONA**

**ARROZTEGIA**

Altzariak neurritara

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



## Sara Zufiaurre: Irigón ar

### Urretxuarrak Gabonak Txinan pa



Irigón baserriak, hainbat sari irabazi dituzten barazkiez gain, bi artista ere eman ditu: Gorka eta Sara Zufiaurre anaia-arrebak. Gorka aktorea aspaldi egin zen ezaguna, herriko antzerki taldearekin, laburmetraietan eta Goenkalen egindako lanari esker. Azkenaldian, bere arreba Sara da egindako lanaren fruitua jasotzen hasi dena. 23 urte besterik ez dituen arren, Euskadiko Orkestrarekin jotzen ari da eta Gabonetan Txinan izan da Euskadiko Gazte Orkestrarekin.

#### Nondik datorkizu musikazaletasuna?

Amak Goiargin abesten zuen eta bost urterekin jada berarekin kontzertuak ikustera joaten nintzela gogoratzen dut. Zaletasuna sortu zitzaidan eta amak Musika Eskolan sartu ninduen solfeoa ikastera.

#### Zergatik aukeratu zenuen klarinetea?

Ez nuen instrumentu askorik ezagutzen. Garai hartan Musika Eskolak orkestra txiki bat eramaten zuen eskoletara eta, beste instrumentuen artean, klarinetea aukeratu zuten. Instrumentu hau Nikolas Elgeak erakutsi zuen: pasaje txiki bat jo zuen eta asko gustatu zitzaidan. Etxera joan nintzenean amari klarinetea nahi nuela esan nion. Aitonak trikitixa jotzea nahi zuen, baina bizilagunak soinua hartu zuen eta nik klarinetea.

#### Nondik nora ibili zara jotzen?

11 urterekin Zumarragako Musika Bandan hasi nintzen. Bertan 18 urte bete bitartean jo nuen. Urretxuko Musika Tailerrean, Musika Eskolako taldean... ere jo nuen. Gero ateratzen hasi nintzen: Legazpitik deitzen zidaten, Azkoitiko bandatik ere bai... "Donostiarra" bandan sartu nintzen eta hor bost urte eman nituen. Banda hori orain orkestra da eta zarzuelak-eta jotzen ditugu. Iaz Iruñeko Bandan jotzeko frogak egin nituen eta bertako kolaboratzailea ere banaiz. Horrez gain, Euskadiko Gazte Orkestran eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoan ere jotzen dut.

#### Klarinetejole ona zaren seinale...

Kategoriak daude: orkestra batean klarinete nagusia eta lehen, bigarren eta hirugarren klarinetejoleak izaten dira. Ez dago melodiak eta bakarkakoak eramango dituzten klarinetejole asko. Hori dela eta, izen pixka bat hartzen denean herri askotatik deitzen dute.

#### Gazte Orkestra eta Orkestra Sinfonikoa Euskal Herriko orkestra nagusien artean daude, zer suposatzen du horrek zuretzat?

Gauza handia da. Euskadiko Orkestrako kolaboratzaile izateko frogak azaroko azken astean egin nituen, nire burua frogatzeko, eta hamalautik lehenengoa gelditu nintzen. Gabonak aurretik hiru kontzertu egin nituen beraiekin, hilabete bukaeran beste programa bat dut beraiekin eta otsailean beste bat. Kolaboratzaile izanik, orkestrako titularrek libratzen dutenean deitzen didate. Euskadiko Gazte Orkestrarekin, berriz, urtebeterako kontratua dut. Ondoren, kontratua berritzea edo berriro frogak egitera bidaltzea erabakiko dute.



## tista eskolako musikaria sa ditu Euskadiko Gazte Orkestrarekin

### Herrian jotzen jarraitzen al duzu?

Zumarragako Banda utzi nuen, baina Iparragirre Balerdi tailerrean jotzen jarraitzen dut. Gabonetan, inauterietan, herriko jaietan... bakarrik jotzen dugunez, ahal badut, etortzen naiz.

### Horretaz gain, Barañainen musika klaseak ematen dituzu.

Kilometro asko egiten ditut. Klaseak ematera astean bitan joaten naiz. Horretaz gain, deitzen didatenean, Iruñeko Bandarekin entseguak ere izaten ditut. Ez nuen uste, baina klaseak ematea oso interesgarria da. Oso esperientzia polita izaten ari da. Astean sei ordu soilik lan egiten dut eta hori pagotsa da. 7-8 urteko hurrei ematen diet klasea, hasi berriei.

### Zer asmo dituzu hasi berria den 2005. urte honetarako?

Hurrengo bi hilabeteetan Euskadiko Orkestrarekin joko dudala badakit eta gero, seguraski, beraiekin joango naiz bira bat egitera. Iruñeko Bandatik beste hiru hilabeterako kontratu egiteko deitu zidaten, baina Txinara joan nintzen eta ez dakit berriro deituko didaten. Barañaingo Musika Eskolan, berriz, ekainera arte jarraituko dut.

### Etorkizunera begira, non ikusten duzu edo ikusi nahi zenuke zure burua?

Euskadiko Orkestran, hori oso argi dut. Euskadiko Orkestran izango ez balitz, beste edozein orkestratan ere gustura joko nuke. Musika jotzetik bizitza gustatuko litzaidake, orkestra batean ez bada, banda batean. Magisteritza musikala ere egin nuen, baina irakaskuntza bigarren aukera da.

### Bi anaia-arreba eta biak artistak... zer demontre du Irigon baserriko baratzak?

Amaren geneak direla esango nuke. Aita oso serioa da. Etxean ere gai horren inguruan hitz egin dugu. Beharbada izaera kontua izango da, Gorkak eta biok

oso izaera irekia baitugu. Ama ere oso irekia da eta toki guztietara eraman gaitu. Gorka antzerki tailerrean sartu zuen, musika munduan sartu ninduen...

### Baserrian ere lan egin beharko duzue...

Aitaren fabrika Gasteizera eraman dute eta behiak kendu ditugu, baina baratzarekin jarraitzen dugu: amak plazara jaisten jarraitzen du. Dena den, beti tokatu zaigu baserrian lan egitea, bai aktoreari eta bai musikariari.



Sara eta Gorka Zufiaurre etxeko terrazan.



Orkestrako lagunekin Txinan erosketak egiten.

## “Txinako publikoa hotzagoa da”

### Nolatan joan zineten Txinara Gazte Orkestrakoak?

Murtziako Gazte Orkestrako eta Siberiako Orkestra Nazionalako zuzendaria azken orkestra honekin joan zen lehengo eta gero Murtziakoa ere eraman zuen. Txinatarrek estatu espainiarreko beste gazte orkestren inguruko informazioa eskatu zioten eta, azkenean, gu joan ginen. "China Mobile" enpresaren bitartez joan ginen eta lehen kontzertua enpresako hamarren bat pertsonarentzat jo genuen.

### Zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Lehen astean zazpi kontzertu jo genituen eta urtarrilaren letik 9ra guretzako denbora libreza izan genuen. Jendeak oso harrera ona egin zigun. Bai beraientzat eta bai guretzat oso berezia izan da. Bertako publikoa hotzagoa dela esango nuke. Obra bukatu eta isil-isilik gelditzen ziren; baina batek musika gustatzen zitzaientean txalorik ez zutela egiten

esan zigun. Gabonetako martxak jo genituenean, berriz, oso azkar animatu ziren txalo egitera.

### Hemengo musika jo al zenuten?

Sarasateren "Aires gitanos" eta Araguesen Gabonetako obrak jo genituen. Strauss-en Gabonetako polkak eta balsak ere jo genituen, Gabonetako kontzertuak izan ziren. Horretaz gain, Txinako bi abestirik ezagunenak edo garrantzitsuenak jo genituen.


### Turismoa egiteko aukera izan zenutela ere esan duzu, zer iruditu zaizu herrialde hura?

Hirietan kontraste handia dago, aberastasuna eta pobrezia elkarren ondoan baitaude. Kaleak oso garbiak daude, baina hirietan kutsadura handia dago. Parke, museo, pagoda eta areto zoragarriak ikusi ditugu. Lehengo Iparraldean izan ginen eta gero 26 orduko tren bidaia egin eta Hegoaldera joan ginen.



## Cruz Jaka, historia eta

Inork ez ditu gure arbasoek idatzi zuten historia, gure familiak, garai bateko bizimodua... Angel Cruz Jakak bezain sakonki eta gogotsu aztertu eta jaso. Jakak inguruotako historia bere bizitzaren ardatz bihurtu zuen eta milaka datu, pasadizu, ohitura zahar, istorio... idatzi ditu bere idazmakina leialarekin, betirako gordeak gera daitezzen. Solasaldia eskatu diogun bakoitzean bezala, umoretsu eta begiak bizi pozez gainezka hartu gaitu bere bulegoan mutiko bihurriaren antza duen 90. urteko agureak.



### **Kontaiguzu zer edo zer zure familiaz, Angel Cruz.**

Eliz-Kalen jaio nintzen. Nire aita, berriz, Eskoriatzan jaio zen. Familia Zumarragara etorri zenean, lehenengoz saskigilea izan zen Buscaren lantegian eta ondoren elektrizista Madayan. Kalean ibili zalea zen, artista oso... Berak duela ia 100 urte egindako ohea oraindik etxean dut.

### **Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?**

*Eskola Nazionaletan* ikasi nuen. 13 urterekin lanean hasi nintzen, nire osabekin, altzari lantegian. Egunean bederatzi ordu lan egiten nituen eta 1,25 pezeta kobratzen nuen. Ez dut nire haurtzaroko oroitzapen berezirik. Hori bai, txikitatik historia lanak irakurtzeko zaletasun handia nuen. 90 urte bete ondoren, atzera begiratu eta zein ondo bizi izan naizen ikusteak txunditu egiten nau. Askok lan egin dut, baina gustura. Gainera, familia ona hezi dut eta ondo erantzun dit.

### **Nolatan hasi zinen agiri eta datu bilketa lanean?**

Jakinmin hutsagatik hasi nintzen. Bila eta bila hasi eta diru asko gastatu dut horretan. Diru hori edaten edo erretzen ere gasta nezakeen, baina ez dut halako bizioririk izan. 18-19 urterekin hemengo futbolari oso on batek, Eloy Gisasolak, nire ilusioa zein zen galdetu zidala eta nik liburuak idaztea zela erantzun niola gogoratzen dut.

### **Zergatik erabaki zenuen Zumarraga eta inguruko herrien mailan aritzea?**

Hiru urtez gerran izan nintzen herritik kanpo eta, beharbada, horregatik izango zen... Ez nuen tiro bakar bat bota, baina asko ikusi nuen. Lehen urtean Euskal Gudalostean aritu nintzen, intendentzia lanak egiten. Loiolan eta "Amaiur" batailoiarekin izan nintzen, Gernikan eta Mundakan. Preso hartu nindutenean langile batailoi batera bidali ninduten Teruelera, baina han ere intendentzia lanetan aritu

nintzen. Eskoltei jaten emateko ematen zidaten diruaren zati bat beste presoei jaten emateko gordetzen nuen, baina konturatu egin ziren eta salatu egin ninduten. Eskerrak nire familiaren laguna zen kaperau bat heldu zen eta salbatu ninduen...

### **Gerra bukatu ostean, zertan aritu zinen?**

Nire aitak eta osabek sortutako "Jaca hermanos y compañía" saskigintza enpresan lanean hasi nintzen. Ondoren, 41 urtez mandatari izan nintzen. Autoa gidatzen ez dakidanez, trenez joaten nintzen Donostiara. Trenean bidaiatuz jende asko ezagutzen da eta asko ikasten da. Azken urteotan ez naiz Donostiara joan, lotsa ematen baitit. Izan ere, jende askok agurtzen ninduen eta dagoeneko asko ez nituen ezagutzen.

### **Nolakoa zen mandatari lana?**

Egunero Donostiara joaten nin-



## storio biltzailea

tzen, igandetan izan ezik. Batzorde Erregulatzailerak askotan joaten nintzen. Izan ere, zer edo zer atzerritik jaso edo atzerri bidali nahi bazen bertatik pasa behar zen. Bankuetako korrespondentziarekin ere joan-etorrian ibiltzen nintzen, jendeak bertan erosten zuen arropa ekartzen nuen... Lehen urteetan lan handia egin nuen. Pentsa, bost seme-alabei unibertsitate ikasketak eman dizkiet!

### Donostiara egindeko joan-etorrietan eza-gutu al zenituen "Academia Errante"-ko kideak?

Intelektual asko ezagutu nituen, tartean "Academia Errante"-ko kideak: Luis Martin Santos, Koldo Mitxelena, Elias Amezaga, Reyes Korkostegi... Busca Isusi eta ni ginen herriko bakarrak. Nik gaia jar-tzen nien eta beraiek gaia prestatu eta horri

### "Academia-koak izan ginen Aita Barandiaran omentzen lehenak"

buruzko hitzaldia eskaintzen zuten. Mahai handi baten inguruan biltzen ginen, beti herri ezberdinetan. Lope de Agirre eta 98ko belaunaldia landu genituen, besteak beste, eta gu izan ginen Aita Barandiaran omentzen lehenak. Oraindik etxean ditut gure solasaldien grabaketa guztiak. Azken bilera Zerainen izan genuen.

### Garai hartan ez zen batere erraza izango halako bilerak egitea...

Polizia atzetik izaten genuen, herri guztietan baitzeuden salatariak. Behin, Mandubian bilera izan eta hamabost bat egunera, Riza enpresako Tomas Arrizabalaga etorri zitzaidan polizia Mandubian gugatik galdezka izan zela esanez. Bertan izandako solasaldiaren zirriboto

ro bat nuenez, Donostiara eraman nuen badaezpada ere. Donostiako tren geltokiko tabernan ere polizia negatik galdezka izan zela eta Gobernu Zibilera Meliton Manzanas-engana joateko agindua eman zutela esan zidaten. Bertara joan eta Meliton Manzanas-ek euren baimenik gabe hamar pertsonatik gorako bilera egiterik ez zegoe-la esan zidan. Ordurako, Koldo Mitxelenak Zerainen eman behar zuen hitzaldia prestatzen ari nintzen eta behingoagatik Meliton Manzanas izorratu behar nuela pentsatu nuen. Gobernadore Zibilari gutuna bidali nion baimena eskatuz eta baimena eman zidan. Handik gutxira Meliton Manzanas topatu nuen kalean eta mehatxatu egin ninduen: "Mandataria zara eta fardel askorekin ibiltzen zara, egunen batean nahasteren batean sartuko zaituen fardelen bat aurkituko duzu...". Izan ere, ez zion batere grazia-rik egin nik Gobernadorearengana jo izanak.

### "Academia Errante"-ko kideekin ez ezik, bakarlanean ere aritu zara eta datu ugari bildu dituzu. Nola lan egiten zenuen?

Oñatiko artxibategian, Donostiakoan, elizetako agirietan... biltzen nuen informazioa. Oñatiko artxibategian informazio asko dago. Bertara joaten nintzen eta fotokopiak egiten nituen. Ezkio, Legazpi, Urretxu eta Zumarragari buruz aurkitzen nuen guztia fotokopiatzeko eskatzen nien. Bere garaian Urretxuko eta Legazpiko Udalei bi herriei buruz nuen guztia eman nien, ekainean Zumarragako Udalari herriari buruzko agiriak eman nizkion eta Ezkiokoa soilik geratzen zait emateko. Ezkiori buruzko datuez osatutako zazpi tomo ditut eta horiek ere emateko asmoa dut, Udalari eta elizari buruzko tomoak publikatuko dituztela agintzen badi-date.

### Urte askotan lan itzela egin duzu...

Niretzat denborapasa edo afizioa izan da eta oso gustura aritu naiz. Zazpi liburu argitaratu ditut, baina ez dut xentimorik ere kobratu. Ez dut diru kontuagatik lan egin, nire jakinmina asetzeagatik baizik.




**HARATEGIA URDAITEGIA**  
 ☎ 943 72 00 61  
 Leturiatarren enparantza, 2  
 ZUMARRAGA



**Keros Enmarkatzeak**  
 Arte ederrak  
 Dekorazioa  
 Opariak  
 Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**  
 Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
 943 72 13 70



**arropa informala**  
 Barrenkale  
 Urretxu  
 943 72 40 57



**ELEKTRATRESNAK**  
 ☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
 Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



# ZUEK BAI JAKIN!



1955: Loiolan Zapiain, Arana, Busca Isusi eta Peñafloredako kondearekin.



Bulegoko orman jarria duen Gudari agiria erakusten.

Hori izan da nire bizio bakarra, baina 90 urte ditut jada eta hori ere utzi egin behar izan dut. Orain familia giroan bizi beharra dut, ezer gutxi egin gabe. Bizi legea da. Nire adinera heltzean atzera begiratzen duzu ezinbestean eta denbora aprobetxatu dudala uste dut.

## **Zure burua historialaritzat al duzu?**

Sekula ez dut historialaria naizenik esaten. Legazpiren jaiotzaren urteurrena ospatu zenean, historiazalea nintzela, ez historialaria, esan nien. Zaletu hutsa.

## **Inguruotako familia gehienak aztertu dituzu, pertsonaiaren edo familiaren bat azpimarratu nahi al zenuke?**

Urretxun eskultore familia zoragarria izan zen: Mendiarrak, Zumarragan, berriz, Migel Lopez Legazpi, Secundino Esnaola, Busca Sagastizabal... izan dira. Ehundaka pertsonaien bizitzak ezagutu ditut.

## **Bestalde, mende luzetan inguruotan jaiotako zerrenda ere baduzu...**

Zumarragan 1521etik 1887ra jaiotako guztien zerrenda dut, baita ezkonduena ere. Domingo Irigoien parrokoak elizako liburuak eman zizkidan eta nik makinaz berridatzi nituen. Baserri guztien historia ere bildu dut, besteak beste.

## **Zure lanean herriak izandako aldaketa gehienak ezagutuko zenituen...**

Aldaketa nagusia nazioartekoak egin ginenean heldu zen, trenbidea egin zenean. Trenbidearekin Zumarragak,

## **“90 urte hauetan bizimodua erabat aldatu dela ikusi dut. Deigarriena elizaren galera iruditzen zait”**

Beasainek, Ordiziak... aurrera egin zuten. 1860. urtera arte Zumarraga Eitza, Elizkale, Bidezar, plaza zaharra (egungo Nafarroa enparantza), Piedad kalea eta Kalebarren besterik ez zen. Trena heldu zenean herriko jauntxoek arkitektu bati herria geltokiruntz zabaltzeko diseinua egiteko agindu zioten. Izan ere, garai hartan geltokia herriaren kanpoaldean zegoen. Zelai-Arizti parkea dagoen tokian eta inguruan muino bat eta izen bereko etxea zeuden. Trenbidea egiteko etxea bota zuten. Urretxun ere Zelai-Arizti izeneko etxe bat zegoen, baina erreka desbideratu zutenean Zumarragara pasa zen. Garai batean erreka tanatorioa dagoen tokiraino heltzen zen. Secundino Esnaola dena ere Urretxu zen! Erreka trenbidea eta geltokira errepidea egiteko desbideratu zen.

## **Bizimodua ere asko aldatuko zen urte hauetan guztietan...**

90 urte hauetan bizimodua erabat aldatu dela ikusi dut. Deigarriena elizaren galera iruditzen zait. Lehen guztiok elizkoiak ginen eta egun bokaziorik ere ez dago. Nire gurasoek izan zuten bizimoduaren eta nik izan dudaren artean alde handia dago. Bestalde, lehen herrian guz-

tiok elkar ezagutzen genuen, Eliz-Kalen guztiok familia baten modukoak ginen.

## **Historia aztertzeaz gain, beste zaletasunik ez al duzu izan?**

Bidaiatzea ere atsegin izan dut. Nahi al duzu aholku bat? bidaiatu aurretik, ikusi behar duzuna aztertu. Hala, gehiago gozatuko duzu. Bi bidaia historiko egin ditut. Lehen bidaia Legazpiko lagun batekin egin nuen: Laredotik Yustera. Bidaia hori Carlos V erregeak egin zuen Alemaniatik hiltzera etorri zenean. Guk Renault Dauphine auto batean egin genuen. Bigarrenean, Doña Jimenaren hiru heraldoen bidaia egin genuen bi lagun eta hirurok. Cid Campeadorrek, Valentziara heldu ondoren, hiru heraldo bidali zituen bere emaztearen bila. Guk hiru heraldo haiek Burgosetik Valentziara bueltan egindako bidaia egin genuen. Jubilatuko nintzeneko beste bidaia bat egiteko asmoa genuen, baina nire bi lagunak lehenago hil ziren.

## **Pasadizurik ere izango duzu...**

Laredotik Yustera egin genuen bidaiaren gure ailegaera iragartzen genuen Udaletan, bertatik pasa ginela ziurtatzen zuen agiria sina zezaten. Toki askotan gure zain izaten ziren. Bi jauntxo helduko zirela uste zuten eta bi atorrante heltzen ziren! Dena den, azkenean lagun onak egin genituen.

## **Zure bizitzaz, zure lanaz... zer edo zer azpimarratuko al zenuke?**

Ez naiz beste batzuk baino gehiago izan. Ez da handiustea izan behar.



## Goierri saskibaloia taldea: 36 urtetan eten ez den soka

1969: Tirapu, Arrizabalaga, Epelde, Aztiria, Rodríguez, Esnal, De Miguel, Lasa, Iraeta eta Altuna.



Egungo kadete mailako taldea.



Urretxun jendetza mugitu duen taldeko kirolik izan bada, hori saskibaloia da. Garai batean, Goierriko jokalariek ehundaka zaletu biltzen zituzten euren partidetan. Egun saskibaloizaletasunak behera egin du, baina Goierriko arduradunek saskibaloia grinaz bizi dute eta zaletasuna suspertzeko lanean gogor

Urretxu-Zumarragako lehen saskibaloia talde federatua La Salle-Legazpi ikastetxeak sortu zuen 1967an, Aita Epifanioren eskutik. Paco de Miguelek ondo oroitzen duen moduan, Goierriren taldea bi urte beranduago sortu zen. "La Sallen jubenil mailako taldea sortu zen eta, bi urte beranduago, Goierriko junior mailako taldea atera zuen junior adinera heldu ginen La Salleko jokalariekin. Goierriko saskibaloia Jose Luis Esnalek sortu zuen eta Gipuzkoako bigarren talde beteranoe-na garelako esan beharra dago. Goierri sortu aurretik, Atletico San Sebastian zen talde federatu bakarra".

Goierriko Gernikako Arbola plaza jokatu zituen lehen partidak, mailaz igotzea lortu zuen arte. "Mailaz igo ginean, euria egiten zuenetan estalpean aritzea behartu gintuzten. Hori dela eta,

ordutik aurrera frontoian jokatzeko erabaki genuen. Pilotalekuko neurriak ez ziren araudiaren araberrakoak, baina garai hartan ia dena onartzen zen. Ordezkoen eserlekua harmailako lehen ilara zen eta bigarrenetik gora ikusleak zeuden!", dio Valentin Berriotxoak.

Gazte haiek, junior mailan bi urte igaro ondoren, senior mailara pasa ziren. Handik urtebetera hirugarren mailan ziren. "Hirugarren mailan Cantabria, Burgos, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako taldeok jokatzeko gogorez, bidaiatzen hasi ginen. Goierriko Gipuzkoako talde indartsuenetakoa zen".

Nahiz eta talde indartsua izan, baliabide eskasia zuten eta bidaiak abentura izaten ziren. Bidaia gogoangarrien artean, Valentin Berriotxoak Avilesera

ari dira. Nahiz eta horretarako, aldi berean, entrenatzaile, delegatu, arbitro... lanak egin behar. Goierriren saskibaloia taldearen lehenaren, orainaren eta geroaren berri izateko Jonpol Agirrerekin, Valentin Berriotxoarekin, Xabier Chicorekin eta Paco De Miguelekin izan gara.

egindakoa oroitzen du. "Urte batean Asturiasera bidali gintuzten jokatzera. Garai hartan Asturiasera joateko zazpi ordu behar zirenez, bezperan joatea erabaki genuen. Mayfer izeneko ostatu baten berri izan genuen eta bertan eskatu genuen ostatu. Hara heldu ginenean putetxea zela ikusi genuen!".

Halako bidaia luzeen ondoren, gehienetan partida galtzen omen zuten. Nekea gutxi balitz, zenbaitetan etxeko taldeek tranpa egiten omen zieten gainera. "Behin Burgosen okertuta zegoen saski bat jarri ziguten eta atsedendian tokian aldatu zuten bigarren zatian ere saski hartan saskiratu beharra izan genezan!".


Saskibaloizaletasunak eta Goierriko urte oparoak bizi izan zituzten urte luzetan, Paco de Miguelek oroitzen



# IZERDI PATSETAN

1981-82

Zutik: Paco de Miguel, Iñigo Aierbe, Nicolas Badiola, Jorge González, Dani Ibarzabal, Julen Garralda, De la Roza eta Txomin Murua. Makurtuta: Xabier Chico, Aitor Narbaiza, Andoni Arrazola, Víctor Lasa eta Andoni Balerdi.



“Pentsa zenbait rifa saltzen genituen: behin Seat 600 bat zozketatu genuen!”

duen moduan. “Hasieran Urola sortu gabea zen eta pilota, txirrindularitza eta saskibaloia ziren arrakasta handiena zuten kirolak. Frontoian sarrera kobratzen genuen eta partida batzuetan, sarrera bost durotan jarrita, 8.000 pezetatik gora ateratzen genuen. Kanpoko partideta ere herriko zaletuak joaten ziren. Pisanik autobusa antolatzen zuen eta bete egiten zen!”.

Gauzak hala izanik, egun baino jende gehiago zegoen laguntzeko prest. “20 lagun inguru izaten genituen rifak saltzeko prest. Julian Etxeberria zenak, pilotalekuko tabernakoak, rifa asko saltzen zituen. Pentsa zenbait rifa saltzen genituen: behin Seat 600 bat zozketatu genuen!”.

Babesleak lortzeko ere ez zuten arazo handirik izaten. “Urte askotan gure babeslea Muebles Arrazola izan zen. Jabeak Legazpin eta Urretxun denda bana zuen eta urtean 25.000 pezeta ematen zizkigun. Gainera, kanpoko partidak ikustera etortzen zen emaztearekin”.

Frontoia ere, egun pilota partidetan bezala, herriko denda eta tabernen iragarkiz betetzen omen zuten. “Garai hartan marketing arduraduna nintzen (Berriotxo) eta Zelai-Arizti tabernakoari testu asko ez jartzeko esan nion, iragarkia ikusleengandik urrun samar jartzen baikenituen eta letra txikia ez baitzen ondo ikusten. Eskerrak hori esan nion! *¿Ha perdido su equipo? No importa, las patatas bravas le alegrarán. Cafetería Zelai-Arizti. Especialidad en pinchos y bravas testua prestatu zidan!*”.

Pasadizu hauek guztiak Goierriren hasierako urteetakoak dira, Ederrena pilotalekuan jokatzeko zutenekoak. Kiroldegiaren irekitzearekin aro berria hasi zen, aurrekoa bezain arrakastatsua. Izan ere, jada kiroldegian, Goierri bigarren mailara igotzea lortu zuen birritan. “Federazioak egindako hankasartzeak medio, bigarren mailan jokatzeko borroka latza izan genuen. 1988an Gasteizko abokatu batzuen laguntza behar izan genuen 2. mailan jokatzeko eskubidea aitortu ziezaguten. Bigarren aldirian, 1990ean, irailean jakin genuen, egunkariaren bidez, ez genuela bigarren mailan jokatu eta ez genuen ezer egiterik izan. Federazioak Legazpiko taldea inskribatu zuen bigarren mailan gure ordez”.

Goierrikoak ez zeuden hala nola amore emateko prest eta euren kexa kamisetan idatzita jokatu zuten txapelketa bat Bidebietan. Hori dela eta, Xabier Chicok oroitzen duen moduan, Foru Aldundiak euren kiroldegietan jokatzeko debekatu zien.

Hamarkada hartan saskibaloiak gainbehera izan zuen. “Entrenatzaile eta jokalaririk gabezia izan genuen, baina buelta ematea lortu genuen. Jorge González entrenatzaile eta jokalaririk lanetan aritu zen, Antonek laguntzen jarraitu zuen eta Jonpolek, Bastarrikak eta nik (Chico), besteak beste, ardurak hartu genituen”.

Dena den, Valentin Berriotxoak garai gogorak itzuliko direla uste du. “10 urtetan maila asko jaitsi genituen eta azken urteotan Autonomia mailara igotzea lortu

dugu (maila horretan Bizkaiako, Arabako, Nafarroako, Errioxako eta Gipuzkoako taldeek jokatzeko dute), baina etorkizun beltza dugu. Gazteek ez dute garai batean zuten ilusioa. Gabonetako Campusa egin dugu, gehienbat kadete mailakoengan pentsatzen, eta infantil askoz ere gehiago etorri da. Eskolako opor garaian entrenatzea ez dute atsegin. Gainera, ez dute entrenamenduetatik kanpo jokatzeko. Lehen gure jokalariek eguna saskibaloian jokatzeko eta partidak ikusten ematen zuten”.

Chico Berriotxoarekin bat dator: “Lehen junior taldeko senior taldearekin joateko esaten baziguten pozez zorrotzen joaten ginen, nahiz eta ez genuela jokatu jakin. Orain, seniorrekin joatea eskaini eta zenbat denbora jokatu duten galdetzen diote entrenatzaileari”.

Aipatutako horrek guztiak eragin nabarmena du Goierriren lehen taldean. “28 urtetik gorako lau jokalaririk ditugu eta hurrengo jokalaririk gazteenak 21 urte besterik ez ditu. Duela lau urte kadete taldeak lehenengoz Euskal Ligan jokatzeko lortu zuen, herrialde bakoitzeko bik bakarrik jokatzeko dute maila horretan, eta etorkizun oparoa genuela pentsatu genuen. Baina talde horretan jokatzeko zuten zortzietatik bik bakarrik jarraitzen dute. Lehen ikasketak zirela eta uzten zuten gazteek saskibaloia, baina orain inplikazioa txikiagoa da, askok errelebotara lan egiten dute...”.

Xabier Chicoren ustez, horri guztiari aurre egiteko, eskola kirola hobetu beharko litzateke. “Saskibaloia eskolara tal-



# IZERDI PATSETAN

dean etortzen dira: ikastetxeetako irakasleek saskibaloian ikasleak jokatzera animatzeak eragin handia du. Baina eskola kirola huts egiten ari da. Ikasturtean zehar hainbat kirol egiten dituzte, baina ez dute bakar batean sakontzen. Gainera, entrenatzaile berak futbola, saskibaloia, pilota... irakasten die. Eskola kiroleko entrenatzaileak trebatzen saiatzen gara, baina gutxi jarraitzen dute urte askotan. Horretaz gain, ez dute disziplina behar adina lantzen: ez dute behar adina entrenatu nahi, entrenatzaileari ez diote zor zaion errespeturik... Hori guztia dela eta, geroz eta gazteagotan hartzen ditugu jokalaria. Izan ere, adin batetik aurrera zaila da saskibaloian jokatzeko ikastea”.

Mutilak lortzeko arazoak badituzte, neskak lortzeko zeresanik ez... “Nesken taldea atera izan dugu, baina ez du jarraipenik izan. Bizpahiru urtetan behin neska pare bat etortzen da galdezka, baina hala ez dago taldea ateratzerik eta gutxiago jarraipena ematerik”.

Xabier Chicok zaletu kopuruak ere behera egin duela azpimarratzen du. “Garai batean pilotalekua bete egiten zen eta jendea kanpoan jokatzeko

genituen partidak ikustera ere joaten zen, kiroldegia ere noizean behin betetzen zen... orain, berriz, Aldirin kanpoko taldearekin etorritakoak herrikoak baino gehiago izaten dira. Dena den, hori toki guztietan gertatzen da. Orain aisialdirako askoz ere aukera gehiago daude”.

Ondorioz, talderako lan egiteko prest dagoen jende gutxiago dago. “Guk geuk egin behar dugu dena: kartelak jarri, entrenatu, delegatu lana egin... gurasoek ez dute jada parte hartzen. Gurekin zortzi urte edo gehiago daramatzaten mutiko askoren gurasoak ez dituzte ezagutzen. Saskibaloia atsegin dugulako eta beste batzuek gugatik lan bera egin dutelako jarraitzen dugu, baina urtero dugu guztiok une txarren bat eta uztea burutik pasatzen zaigu. Gu nazkatzen edo nekatzen garenean ez dakit zer gertatuko den” (Valentin Berriotxo).

Kirol munduan, gizarteko beste alor batzuetan bezala, jendearen inplikazioak behera egin badu ere, babesleek Goierriren saskibaloia taldea laguntzen jarraitzen dute. Hori dela eta, lau solaskideek iragarle guztiei eskerrak eman nahi izan zituzten solasaldia amaitu aurretik.

## Harrobi bikaina



1971: Urisabel, Aztiria, J. Murua, A. Rodríguez, Arrizabalaga, J. Rodríguez, De Miguel, Iraeta, T. Murua, Irizar eta Cáceres.

Goierri saskibaloia taldearen harrobiak jokalaria bikainak eman ditu urte hauetan guztietan egindako lan onari esker. Horietako hiru estatu espainiarreko maila nagusian jokatzera heldu ziren: Murua, Galdona eta Txintxurreta. Goierrikoek Joxe Murua legazpiarra oroitzen dute batez ere. “Sekulako maila zuen. Oraindik junior mailakoa zela Kas-Bilbaorekin Real Madril aurka jokatu zuela eta Brabender bikain defendatu zuela oroitzen dut”, dio Paco De Miguelek. Azken urteotan ere Goierri maila oneko jokalaria eman ditu. Asier De la Iglesia, esaterako, EBA ligan jokatzeko ari da Atletico San Sebastianekin.

## William Petersen, Goierritik Hollywood-era

Goierri jokatu zuen estatubatuar batek mundu mailako ospea lortu du, nahiz eta saskibaloia kontuan ez izan: CSI Las Vegas telesaileko aktore nagusia den William Petersen-ek Goierri jokatu zuen 70eko hamarkadan. Valentin Berriotxoak, Goierrikoen artean ingelesez zekien bakarrak, harreman estu samarra izan zuen berarekin. “1973an, Oñatibia medikuaren anaiaren bitartez, estatubatuar talde bat Oñatiko ETEOran etorri zen ikastera.

Legazpiko saskibaloia taldeak Amerikatik etorritako bi lagun hartu zituen, horietako bat bi metrokoa eta oso jokalaria ona, eta guk ere amerikar horietakoren bati gure taldean jokatzeko eskaintza egitea pentsatu genuen. Mutil haietako batek saskibaloian aritua zela



eta gurekin jokatzeko prest zegoela esan zigun. Federazio espainiarrak ez zion partida ofizialetan gurekin jokatzeko utzi, atzerritarra zelako, baina adiskidantza partidetan aritu zen. Ez zen jokalaria bikaina, baina egunkarian berak jokatu behar zuela agertzen zen bakoitzean pilotalekua jendez gainezka izaten zen. Lagunak egin ginen eta antzezlan batean ateratako argazkia eman zidala eta asko erretzen zuela gogoratzen dut. Tipo azkarra zen, ingelesez hitz egiten nionean ulertu egiten baitzidan! Amerikatik etorritako batzuk oñatiarrekin ezkondu ziren eta haietako batek esan zidan eurretako bat egun CSI telesaileko aktorea zela. *Jode! Mutil horrek gurekin jokatu zuen eta!* esan nion”.





## Maria Antonia Hortigüela

Urretxu eta Zumarragan inauteriak biziki gozaten dituen herritarrik bada, hori Maria Antonia Hortigüela da. Maria Antonia Burgosen jaio zen, baina 17 urterekin Euskal Herrira etorri zen bizitzera. "Lan egiteko gogoia nuenez, egunkarian iragarki bat ikusi eta Bergarara etorri nintzen *Telefonica*-n lan egitera. Nirekin primeran portatu zen familia batekin izan nintzen bizitzen".

Ondoren, Bergaratik Zumarragara bidali zuten lanera. "1966. urtean Legazpiko *Plásticos Mel* enpresan hasi nintzen lanean eta gero *Plasnor*-era pasa nintzen. Bertan lan egin dut jubilatuta naizen arte. Bizi, berriz, Isabelita Garinekin bizi izan nintzen; 1978an ezkondu nintzen arte".

Aipatu bezala, Maria Antoniak izugarri gustuko du inauterietan mozorrotzea. "Nire aita oso alaia zen eta bere familiako guztiak artista samarrak ziren. Txikitatik mozorrotzen naiz inauterietan, baina herrian ohitura hau galtzen ari dela iruditzen zait. Gauetan giroa izaten da, baina nik egun argiz bizi behar dela uste dut".

Maria Antoniak antzerkia ere oso gustukoa du eta jubilatuen *Irri Makila* antzerki taldeko kidea da. "Iaz hasi nintzen jubilatuen antzerki taldean. Laguntzeko asmoz joan nintzen eta *Con el piedra de 800 kilos, mi señorito se va a Madrid* antzezlanean amonia papera eman zidaten. Primeran pasatzen dugu".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Komediantea. Berezkoa dut: betidanik gustatzen zazkit mozorrotzea eta antzerakoak.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Beti zer edo zer egiten egon beharra dut. Nire hobby-a gakorratza da, baina antzerkia ere asko atsegin dut.

### -Bizitzeko toki bat?

Nire jaioterria: Villayerno Morquillas. Oso herri txikia da, baina geroz eta gustukoago dut. Han ez bada, hemen.

### -Gustukoen duzun mozorroa?

Denak atsegin ditut. Ganbarara joan eta han dudanarekin edozertaz mozorrotzen naiz. Umeei barre eragitea dut gustuko.

### -Gustuko inauteriak?

Tolosakoak ditut gustuko, baina alaitasuna nagusi den toki oro atsegin dut. Rio de Janeirokoak, Tenerifekoak... sofistikatuuegiak iruditzen zaizkit.

### -Sekula jantziko ez zenukeen mozorroa?

Deabruz eta munstroz ez nintzateke sekula jantziko. Nahikoa beldurtu gintuzten gure haurtzaroan!

### -Gustuko antzezlanak?

"Manolito Gafotas". Gaztelerazko antzezlan guztiak ikustera joaten naiz. Euskarazkoetara ere joan izan naiz, baina ez dut nahikoa ulertzen eta galdu egiten naiz.

### -Gustuko aktoreak?

Lola Herrera eta Lina Morgan asko atsegin ditut.

### -Gustuko umoristak?

"Cruz y Raya".

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

### -Egindako azken oparia?

Seme-alabei egin dizkiedanak.

### -Eta jasotakoa?

Zintzilikariodun lepokoa.

### -Data bat?

Seme-alaben jaiotze datak. Horiek ezin dira sekula ahaztu.

### -Neska eta mutil izen bana?

Aitarena eta amarena: Antonio eta Justa.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV. Hitza irakurtzen ere saiitzen naiz.

### -Gustuko telebista saioa?

Komikoen saio guztiak atsegin ditut, baina zoritxarrez oso gutxi botatzen dituzte. "Laurel eta Hardy"-ren filmak faltan somatzen ditut.

### -Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano", "Salsa rosa" eta antzerakoak.

### -Liburu bat?

"El árbol de la vida".

### -Filme bat?

"El árbol del ahorcado".

### -Soinu bat?

Batez ere sokazko instrumentuena.

### -Usain bat?

Baratzuriarena.

### -Janari bat?

Guztiak.

### -Ura ala...

Ura.




URRETXU  
ZUMARRAGA



IKASTOLA

## IZAN DIRELAKO GARA, GARELAKO IZANGO DIRA



**Izena emateko epea: otsailaren 14tik 28ra**

**Informazio bilerak: otsailaren 15ean (euskaraz) eta 16an (gaztelaniaz), 18:30ean Ikastolan**

**☎ 943 72 00 26**



**Eskola Publikoa:  
zuen aukera  
gure etorkizuna,  
zatozte ikustera!!!**



**Matrikula epea:  
Otsailaren 14tik 25era bitartean**



Tel.-fax: 943 72 12 14  
e-mail: 012284aa@hezkuntza.net  
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu

Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13  
e-mail: jmiparragirre@edunet.es  
Sta. Barbara bidea z/g. - Urretxu